

# **ARRASTOA**

Juan Kruz Igerabide

**Argitaletxeko koordinatzailea:** Aurelio Erdozain

**Egilea:** Juan Kruz Igerabide

**Azala:** Luis Alonso

**Bildumaren diseinua eta maketazioa:** Luis Alonso

*Liburu honek Eusko Jaurjaritzaren laguntza jaso du.*

Ale hau erabiltzeko eskubide guztiak erreserbatuta daude. Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitutzat har daiteke. Debebatuta dago testu osoaren edo zati baten hura informatikoki erabiltzea edo hedatzea, aurrez baimen idatzia izan gabe. Zatiaren bat eskaneatu edo fotokopiatzeko, baimena eskatu behar zaio ALAI ARGITALETXEA argitaletxeari (alai@alai.eus), alearen titularra den aldetik, edo CEDRO erakundeari (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.cedro.org](http://www.cedro.org)).

© Juan Kruz Igerabide  
© Alai argitaletxea, SL

# ARRASTOA

Juan Kruz Igerabide

ALAI ARGITALETXEA, SL  
alai@alai.eus  
**www.alai.eus**

ISBN: 978-84-120944-3-5  
Lege-gordailua: D 295-2020  
EBn inprimatua - Printed in EU.

# Arrasto baten atzetik

Arrasto baten atzetik bidali naute Iruñetik Lekunberrira 1936ko uztail itogarri honetan, Sanferminen ostean; goardia zibileko detektibea naiz, uniformerik gabe ibiltzen direnetakoa, nondik informazioa aterako. Dohain berezia dut harremanetarako, berehala lortzen dut jendearen konfiantza. Dena dela, gauzak nahasirik dabilta herrialde honetan, munduan ere bai aspaldian, jendea aztoratuta, gorrotoa nonahi, eta edozer gerta daiteke, beste gerra bat agian; erreketek antolatzen ari dira alde guztietan, eta jende armatua daukate edozertarako prest. Hala ere, nire ardurak ez du zuzenean zerikusirik egoera politikoarekin, nahiz eta liskar politikoen ondorio dirudien hona ekarri nauen gertaerak; kontua da duela egun batzuk udaletxeko atezaina hil zutela, Antonio Lizarralde, karlista amorratua, liskarzalea, batik bat mozkorturik zegoenean. Susmagarri bakarra atxilotu zuten, herriko maisua, Donato López errioxarra, Antonio zenak harekin eztabaida gogorak izaten baitzituen herriko tabernan; elkarri lepotik heltzera

ere iritsiak ziren. Hobeto esateko, Antonio Lizarralde heldu zion lepotik Donato Lópezzi, eta errioxarrak, odol berokoa hura ere, aurre egin, eta auskalo zer gertatuko zen apartatu izan ez balituzte. Berez, Donato maisua lasaia omen da, baina ideia politiko sendokoa, errepublikazalea eta hezkuntza liberalaren aldekoa. Eta hori ezin eraman herriko agintariek, apaizek, eta haiekin bat eginik zebilen Antonio Lizarralde ordenantza edo kontserje edo dena delakoak. Oraingo, hori besterik ez dakit.

Kasuak argi samarra dirudi, baina nire detektibesenak aspaldi erakutsi zidan gauzak azaleko itxura hutsagatik ez epaitzen. Idazteko moduagatik antzemango zait maisu errepublikazalearen alde egiten dudala, baina ez, nik hotz jokatzeko dut detektibe gisa, arrazoi sendoen atzetik ibiltzen naiz. Donato maisua, hasieratik gizon burutsua begitandu zait, eta horrek adierazten dit kontua agian ez dela esan didaten bezain sinplea. Dena dela, burutsua izateak ez du esan nahi uneren batean burua ez galtzea eta hiltzaile bihurtzea, kontuan izanik, beste batzuetan ere, beroztzean, bere errioxar kasta hori atera izan duela.

Duela egun batzuk, tabernan, eztabaidaren erdian, Antonio Lizarralde Donato Lópezzi mehatxu egin omen zion zerraldo botako zuela tiroz, argi ibiltzeko.

—Nahi duanean, eta nahi duan lekuan —erantzun omen zion Donatok, bero, bere euskara txukun samarrean—; aurrez aurre, gauza baldin bahaiz.

Gero, listua bota omen zuen alde batera Donatok:

—Baina hi, suge pozointsu hori, kapaz haiz atzetik eta abisatu gabe etortzeko.

Eta orduan heldu omen zion Antonio Lizarralde lepotik, eta Donatok ere bai berari. Eta, apartatu izan ez balituzte...

Baina, hara, mehatxatzailea erori zerraldo, traizioz; ez tiroz, pozoituta baizik. Iruñera ekarri zidaten medikuaren txostenak zioenez, odolbideak erre zizkion azido bat sartu zioten xiringa batez, ziurrenik mozkor-mozkor zegoela baliatuta. Halako lan bat ezin du edozeinek egin Lekunberrin, ezagutza behar da horretarako. Horregatik atxilotu zuten berehala maisua. Horregatik, eta egun batzuk lehenago izandako liskarregatik, eta lehendik ere biak arerio jakinak zirelako noski.

Nik, hala ere, telefonoa hartu, eta Donato segituan askatzeko agindua eman nuen Iruñetik; zerbait garbi atera nahi badut, hobe dut zelata egoki bat egin, Donato azeri moduan inguratu, ea nondik edo handik arrastoren bat uzten duen. Eta utziko du, ziur nago. Beti uzten dute, baita bizkorrenek ere.

Ez da agertu xiringarik. Berez, Lizarralderen anaiak mediku forentse bat eskatu izan ez balu, heriotza naturaltzat hartuko zen gertatua. Forentsearen analisisan, azido arrastoak agertu ziren odolean, eta topatu ere topatu zion Antoniori orratz-zulotxo bat izterreko zain femoralean. Oso lan txukuna, esan zuenez.

Kasua ez da samurra. Antonio horren anaia karlista da, Tafallakoa, erreketean artean lagun asko dituen eta mendeku-gosez dabilena; nire agintariak estutu ditu, eta haiek kasuari denbora osoa eskain diezaio-dala agindu didate, behar dudan egunetan geratzeko Lekunberriko ostatu ziztrin honetan, kasua argitu arte. Ganadu-tratantearena eginez nabil, baserriz baserri, jendearengara errazago iristearren, Lekunberri inguratuz, eta, aldi berean, hiltzailea konturatu gabe, sokaren lokarria estutuz, hura lakioan harrapatu arte. Maisuarengana ziraunaren pare hurbildu behar dut, ea ez diodan susmo txarrik eragiten. Alkatearekin hitz egiteko modua ere aurkitu beharko dut, nor naizen azaldu gabe noski.

Ostatuko gela ilun honetan sartzen den gaueko hiri-argi urriak arrasto bat osatzen du sabaian. Argia-rena izan arren, zikina da, lohi-turrusta baten antzekoa. Gainera datorkigun garai ilunaren iragarpena dirudi; gauzak nahasirik dabilta, eta lurralde honetan ni bezalako batek ez dakit etorkizun handirik izango ote

duen. Edonon erreketek taldeak ugaritzen ari dira, armaturik eta ondo antolaturik, eta agintari errepublikanoak beste aldera begira; ez dakit atarramendu onik izango ote dugun laster baino lasterrago.

Mintz horizta zurbil batek estaltzen du sabaiko arrasto zikina, plastiko zirtzilez estalia balego bezala. Begiak jaitsi, eta bi arrosa gorri ikusi ditut gau-mahaia-ren gainean, ostatuko emakumeak utziak, gainbera datorrela dirudien gela honetan odol berria adierazi nahirik edo.

Zigarro bat piztu dut. Kea zuzenean arrasto itsusiaren bila abiatu da, harekin bat egitera. Zigarroari tiratzen diodan bakoitzean berritzen den txingarrak begiak pizten dizkit, nire ikusmena areagotuz. Martxa honetan, ez dakit noiz lo hartuko dudan.

Nondik hasiko naiz bihar?

Hurrengo goizean jaiki naizenean, ez du batere berorik egiten; jaka jantzita irten behar izan dut kalerara, gosalduta ondoren. Ostatu ziztrin honetan, gosaria behintzat ez da batere ziztrina: arrautza-lukainkak, Erriberako ardoa eta kafesnea. Emakumea atzo baino ederragoa iruditu zait; azal zuri-zuri gurikoa, haragitan oparoa; ezpainetako irribarrea gorputz osora zabal-tzen zaion horietakoa. Beste inor ez da ageri ostatuan lanean. Berak bakarrik maneiatzen du dena, inondik

ere. Egia esan, ez dago mugimendu handirik; beste apopiloren batzuk badira; atzo afaritan ikusi nituen, baina goiz irten dira etxetik, lanera edo.

Detektibe senak aieruak egitera eraman ninduen atzo afal orduan: hasi nintzen pentsatzen emakume guri hau alarguna ote den, umeak haziak izango ote dituen, han eta hemen lanean ibiliko ote diren, baka-riik geratu ote den munduan, bere mundu osoa osta-tu hau ote den, amoranterik ba ote duen, amorantea finkoa ote den ala apopiloen artean bilatzen ote duen maite-asea.

Ardoari ederki tiratu nion, pixka bat txispatu-ta besteekin harremana errazagoa izango zelakoan, baina berehala oheratu ziren denak. Nik, presarik ez nuenez, edaten jarraitu nuen, dexente. Emakumeak, sukaldeko lanak amaiturik, kafea atera zidan, eta bera ere mahaira eseri zen bere kikararekin. Gona alde ba-tean askatua zeukan eta izter zati bat ageri zitzaion. Tentatzen ari zitzaidalakoan, balantzaka jaiki nintzen eskua harengana luzatuta.

Jo zidan masailekoak berriro eserita utzi ninduen, barkamen eske, hitz totalka:

—Uste nuen... barkatu, barkatu...

Zutik jarri, eta malkoa zeriola sartu zen bere ge-lan. Mozkorrak eraginda, bestela ez nuen egingo

halakorik, atzetik jarraitu eta haren gelan barruratu nintzen.

—Alde hortik! —bota zidan zorrotz, ahotsa jaso gabe.

Negar-zotinka zegoen, ohe ertzean eserita. Ni, berriz, barkamen eske, ate ondoan, mozolo-mozolo. Noizbait ere baretu zenean, bostekoa eskaini nion.

—Adiskide?

Azkenean, eman zidan eskua. Orduan, neure gela-rantz abiatu nintzen. Mozkorra arinago neukan, baina oraindik balantza egiten nuen.

—Zaude —xuxurlatu zidan—. Eseri hor.

Aulki bat seinalatu zidan. Obeditu egin nion.

Nor nintzen jakin nahi izan zuen. Eta nik, ez dakit mozkorren eraginez edo, emakume hark konfiantza eragin zidalako edo, benetan zertara nentorren bota nion. Tonto alaeen honek, lehenbiziko okasioan, zapla, nortasuna agerian utzi. Kontuz ibili beharra daukat ar-doarekin.

Isilik geratu zen, izututa ala pentsakor, hori ez da-kit. Gau on esan, berriro barkamena eskatu portaera-gatik, eta neure gelara erretiratu nintzen.

Gosaltzen amaitu dudanean, kafe gehiago atera dit kikarara, eta berak beste kikara bat hartu du. Be-